

za aukeratu du fikziorako. Nabaria da kontakizunean elkarrizketek hartzen duten pisua, inoiz zinemarako gidoia lez irakur daiteke *Feriatzaileak*. Patton pelikularen filmazioa dugu nobelaren abiapuntua.



Lasa Oyarbide,
Aitzol
(Iruñea, 1978)

179

Iruñean sortua 1978an, Matematikak ikasi nituen Euskal Herriko Unibertsitatean lehenengo eta Kopenhageko Unibertsitatean ondoren. Bigarren Hezkuntzako Institutuetan hainbat urtez matematika klaseak eman ondoren, Matematikaren Didaktikan Doktoratu nintzen eta klaseak ematen ditut NUPeko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean, Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduetan eta Bigarren Hezkuntzako Irakasle Masterrean.

Matematikaria izateaz gainera, zientzia gaiei buruz idazten dut. 2006an hasi nintzen idazten Elhuyar Fundazioaren Zientzia eta Teknika aldizkarian, eta horrekin batera, Norteko Ferrokarrila eta Teknopolis saioetarako gidoiak ere idatzi izan ditut. Esperientzia horien ondotik, nire irratsaio propioa gidatu nuen bi urtez Eguzki Irratian, zientziaren dibulgazioa irрати komunitarioetan eta sare sozialetan hedatzeko asmoz.

Horren guztiaren aurretik, aitortu behar dut literaturaren zaletasuna institutuan sartu zitzaidala, Jokin Muñoz (Euskadi Literatura Saria, 2004, 2008; Espainiako kritikaren saria, 2008) izan bainuen euskara eta literatura irakasle lau urtez. Euskara literaturaren bitartez irakasteko duen gaitasuna aitortu nahi diot Jokini, eta nabarmendu nahi dut zenbateraino izan den lagungarri bere jarduna, batere euskalduna ez zen giro batean gazteengan euskararekiko atxikimendua sortzen lagundu duelako.

CAF-Elhuyar sariaren irabazle izan nintzen 2010ean. Sari horren harira publikatu zidaten gazteentzako lehenengo zientzia-narrazioa, *Hodeietan* (Elhuyar, 2012). Lehenengo liburu horretan, literaturaren bidez zientzia gaztetxoei hurbiltzeko ahalegina saritu zidaten, baina ezten txiki bat geratu zitzaidan, ez nintzelako matematikari buruz idazten ausartu. Arantza hori hiru urte beranduago atera nuen, bigarren zientzia-narrazioa kaleratu nuenean, *Usategiaren Printzipioa* (Denon Artean, 2015). Tartean, matematikaren irakaskuntzari buruzko dozena bat ikerketa-artikulu idatzi ditut, eta lan horien bilduma bat ere kaleratu nuen, *Jarduera matematikoa eredu dinamikoen laguntzaz* (Udako Euskal Unibertsitatea, 2015), Unibertsitate mailako testuliburu gisa erabilia izan dadin.

Hizkuntza handietan zientzia-narrazioa genero gisa kontsidera ote daitekeen, hori ez dut nik erabakiko. Hala ere, eta bistan denez, gisa horretako liburuaren produkzioa handiagoa da mundu anglosaxoian. Gurera heldu izan dira itzulpen batzuk, batez ere ingelesetik eta frantsesetik. Liburu horiek gure literaturara ekartzea ezinbestekoa izanik ere, itzulpenetan agertzen diren erreferentzia kulturalak eta idazteko manierak arrotzak zaizkigu neurri batean. Idazten hasi nintzen momentutik garrantzitsua irudi izan zait jatorrian euskaraz idatziak diren testuak eskaini behar dizkiegula gure ikasleei, zientzia gaiak irakur ditzaten eskola liburuetatik haraindi. Behin gazteen literaturan muturra sartu ondoren, nire asmoa da etorkizun hurbilean helduei zuzenduriko dibulgazio liburuak ere idaztea.

180

Azken hamarkadetan eta ulergarritasunaren aitzakian, zientzian erabiltzen den hizkuntza sinplifikatzeko joera bat egon da. Fenomeno horri gaineratzen ahal zaio joera garbizaleek hizkuntzaren lexikoari eta sintaxiari eragindako itxuragabetzea. Erronka bilakatu da, beraz, joera horiei aurre egitea, zientzia normaltasunez irakurria izan dadin euskara aberats eta XXI mendeko batean.

Galdetzen didazue nork izan ote duen eragina nire idazkeran eta idazle lanetan. Bada, lehenengo eta behin, bizkaieraz ezezik batuan ere sakon eta natural idazten duten horiek ekarri nahiko nituzke gogora, Edorta Jimenez eta Xabier Amuriza. Bestalde, zientzia gaiei buruz eta batez ere matematikari buruz maisuki idatzi dutenen artean, ezin aipatu gabe utzi Kepa Altonaga, Ian Stewart edota Simon Singh.

Nací en Bergara, Guipúzcoa, en 1966, y desde 1995 vivo en Iruñea.

Por mi formación procedo del mundo de las artes plásticas pero siempre he compaginado el dibujo, la pintura y la escultura con la escritura, centrada principalmente en temas sociales y de medio ambiente.

Comencé muy joven mi andadura artística realizando y manipulando títeres en Xiputz, grupo de teatro especializado en espectáculos callejeros.

